

17E/2021 FORU AGINDUA, otsailaren 16koa, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko kontseilariak emana, Euskarabidearen eta Euskaltzaindiaren artean 2021erako lankidetzahitzarmen bat egiteko gastua baimentzen duena.

ERREFERENTZIA: **Espedientearen kodea: 0011-S014-2021-000000**

UNITATE KUDEATZAILEA: Herritarrekiko Harremanetako Departamentua
Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua
Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua
Tfnoa.: 848 426054
Helbidea: Paulino Caballero 13, 31002 Pamplona / Iruña
Posta elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikulua xedatzen du Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak esleitzen ahal dituela dirulaguntza izendunak, baldin eta lortu nahi den helburua eta diru kantitatea berariazko onuradunari zehazten bazaizkio.

Nafarroako Parlamentuak, 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legearen bidez, "Euskaltzaindiarekiko hitzarmena / Convenio con Euskaltzaindia – Real Academia de la Lengua Vasca" izeneko B30001 B3100 4816 334100 partida izenduna onetsi zuen, 190.000,00 eurokoa.

Horiek horrela, egokitzen da Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren artean hitzarmen bat sina dezaten, arautzeko sinatzaileek hartutako konpromisoen markoa, Euskaltzaindiak Nafarroako Foru Komunitatearekin zerikusia duen jardura ahalbidetzera bideratua.

Euskarabideko zuzendari-kudeatzaileak aurkeztutako txostena ikusirik, eta Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 271/2019 Foru Dekretuan ezarritakoaren bidez esleitu dizkidaten ahalmenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. 190.000,00 euroko diru gastua baimentzea, 2021ean, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren eta Euskaltzaindiaren artean lankidetzat hitzarmen bat egiteko.

Gastu hau egingen da 2021eko gastuen aurrekontuko B30001 B3100 4816334100 “Euskaltzaindiarekiko hitzarmena / Convenio con Euskaltzaindia – Real Academia de la Lengua Vasca” partidaren kargura.

2. Foru agindu hau igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuan Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak duen kontu-hartzailetzara, aipatutako departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Kudeaketa Administrazio eta Ekonomikoaren Atalera, Hizkuntza Baliabideen Zerbitzura, Programen Bulegora eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera.
3. Foru agindu honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Nafarroako Gobernuari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2021eko otsailaren 16an

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO KONTSEILARIA

Ana Ollo Hualde